



## Nazio izatearen ardura



KARMELO LANDA MENDIBE  
HISTORIALARIA

**E**uskal Herria nazioa bada, jo dezagun aurrera, eta euskal nazio demokratikoaren egiturak eraiki, zabaldu eta indarrean jarri. Egin dezagun behingoz politika positiboa euskal nazioa oinarri hartuta. Eraiki dezagun behingoa euskal herritarren etxea, Euskal Herria.

Euskal Herria nazioa da. Hori entzuten dugu berriro ere gurean, hori esaten da, baina paradoxaz, alderdi abertzale instituzionalei emandako boto kopurua goraka doan garai hauetan, desnazionalizazio prozesua ere modu azeleratuan zabaltzen ari da bi estatuetatik gure etxe barrura. Euskara ikasi duen herritarren kopuruak ere gora egin duen garai berean, euskararen erabilera ahuldu, trabatu, galgatu eta atzeraka hasi eta guztiz galtzeko arriskuan dakusagu. Larrialdi egoeran daukagu euskal nazioa, hori da egia.

Zama astuneko bi estatu jarri zaizkigu gainean, bai, eta bakoitzak bere “naziotasuna” eta “hizkuntza unibertsala” indarrez eta modu eraginkorrean hedatu du Euskal Herriaren alde banatan. Espainiar edota frantziar izatera, sentitzera eta mintzatzerara behartu gaituzte, eta gurean ez dira gutxi dagoeneko inposaketa hori gertaera naturalizat hartzen dutenak. Horretarako bitarteko ugari baitute bai Frantziak bai Espainiak.

Baina esan dezagun argi hau ere: etorkizuneko proiektu gisa bai Espainia bai Frantzia porrot egindako estatuak dira. Zergatik? Begira dezagun Frantzia: estatu mailako aliantza progresista deitua hauteskundeetan garaile izan arren,

*Itsasontzi lastatua da  
Espainia deitua, eta  
lasta edo zama guztia  
istriborrera pilotzen  
zaio, eskuin muturrera  
beti. Nola ontziratuko  
gara, bada, hor  
euskaldunok? Ez gure  
borondatez!*

makronismotik eskuin mutur lepenistarrantz doan gobernantza egiturak nagusitzen dira.

Begiratu Espainiara, egitura zurrunezko itsasontzia da Espainia betiereko hori: brankan du monarkia ustela, borboiak txandaka lemazain; eskuineko amulan militarrek, beste aldekoan epai-leak; enpresarien elitearen kasta zubian nagusi; txopan, berriz, txandakako gobernu beti otzana eta haren marinela, morroi eta txo laguntzaileak. Itsasontzi lastatua da Espainia deitua, eta lasta edo zama guztia istriborrera pilotzen zaio, eskuin muturrera beti. Nola ontziratuko gara, bada, hor euskaldunok? Ez gure borondatez!

Itsaso zabaletan nabigatzen beti izan dugun trebezia berreskuratu behar dugu. Baina itsasontzi propio egokian,

nazio propioaren porturako bandan abiatu eta eskifaia egokia osatuta. Ez onartu inola ere estatu bi horiek erabaki dezaten gure nazioaren egitura, gure historia, kultura, hizkuntza, jendarte antolaketa, gure norabidea eta etorkizuna.

Nazioa bagara, nazioa izatearen ardura gure eskuetan hartu behar dugu behingoz, ondorio guztiekin. Ez gara jarriko defentsiban, estatuen erasoan zaparradaren azpian euritakoak zabaldua. Ez.

Zer dugu gure alde? Euskal herritarren nortasuna, euskaldun izateko borondate zabal nagusia. Horri eman behar diogu bide. Euskal Herriaren historiari berreskuratu behar dugu hari baikorra. Gu, euskaldunok, ez gara inoiz inposatzaile izan, biktima gara, sarritan erabaki irmoz eta indarrez ere defendatu den biktima. Ez dugu ontzat emango gure ibilbide historikoaren bertsio arrotz eta maltzurrik. Ez dugu, beraz, gurea ez den zorrik kitatu behar, ez eta ondoriozko baldintza inposaturik onartu.

Euskal herritarrok ez gara Euskal Herriari “gutxiengo nazionala”, estatuak eta enparauak horretan tematzen diren arren. Euskal herritarren borondatezko naziotasun demokratikoa euskal naziotasuna da. Aldiz, espainiar edota frantziar sentitzen direnak, horiek dira Euskal Herriari gutxiengo nazionalak. Ondorioz, euskal nazioaren antolaketa demokratikoa naziotasun euskalduna eta euskara hizkuntza unibertsala bermatu behar ditu. Nazioa izatearen ardura euskal nazioaren demokratikoa garatzea eskatzen digu. ●